

AMETSAK ALOKAIRUAN (AFORISMOAK)

1. “Bihar” hitz luzea da.
2. Neure burua saldu dut baina kontzientziaz baka-
rrik.
3. Behar ez dudan guztia daukat. Desio nuena.
4. Gorrari garrasika hitz egiten diogu, geure burua
ere entzun ez dezagun.
5. Hitza jaten didatenei, loditu daitezen desio diet.
6. Adiskidetzeta berriro puzzlea osatzea da.
7. Denbora sobera daukat baina minutu bat ere ez
galtzeko.
8. Ez pentsatzearekin dena ordenatzen da.
9. Hutsunearen bila aritu: zeure burua aurkituko du-
zun arte.
10. Bizitza ez da behin ere serio hartu behar. Beste-
la, luzeegia egiten baita.
11. Denok dakigu bestearen lekuan jartzen, baina
gure aulkia hartuta.
12. Gero eta ume gutxiago jaiotzen denez, hiltzen ez
diren zaharrak are eta umeago dira.

13. Dutxan nagoenean garbiago pentsatzen dut.
14. Deusa behar da mundua iraultzeko eta dena ezer ez aldatzeko.
15. Ekuazioa: zeure buruari barkatzen ez diozunean, besteek daukate errua.
16. Bakoitzak bere bizitza dauka, besteen sartu irte-
nekin.
17. Konfiantza erraz galtzen da eta errazegi eskatzen.
18. Erortzen naizenean, sekula gehiago ez zutitzeko
moduan jaikitzen naiz.
19. Mundua sendatu litekeela pentsatzen dudanean,
gaixotu egiten naiz.
20. Geure buruarekin bakarrik gelditzen garenean
entzuten ditugu oihurik lazgarrienak.
21. Beldurrak janda nauka; horregatik nago hain lirain.
22. Ez dut sekula ulertu: irteera eta helmuga puntua
leku berean badaude, zertarako korrika egin?
23. Badira minak, giltzarrapoarekin gordetzen ditu-
gunak; badira une zoriontsuak, ahanzturarekin
galtzen ditugunak. Eta badira zoriona erdietsi na-
hian, betiereko mina ediren duten hitzak.
24. Buruz ikasi, buru asko gabe.
25. Zorionak nire atean jo du eta ez dakit zer egin.
Baliteke eskalea izatea.
26. Mahai-inguru batean denak ados badaude, ma-
haia ken liteke.
27. Aho txikiak gezur handiak jaten.
28. Autodidakta: ikusten ez duena ikasten duena.

29. Gezurra: egiaren zain luzaroan egon ondoren, eskuzabalik hartzen dugun salbatzailea.
30. Debekua: fans gehien duen erabakia.
31. Ezustekoa eta uste gabekoa oposizio-lagunak dira.
32. Ez dut mundua ulertu nahi; berak ni onartzearekin konformatzen naiz.
33. Orporaino maitemintzen denak, maizenik, zapaldu egiten du maitasuna.
34. Sinatzea fede kontua da. Irakurri ere egin gabe botatzen baita errubrika.
35. Etsaiak: garaitu ezin ditugun horiek.
36. Sugeak jakin izan balu argazkia aterako ziotela, ez zukeen elefantea irentsiko.
37. Dena dago esanda. Horregatik errepikatzen gara.
38. Istripuek ez dute trukerik onartzen.
39. Sarritan, nahiago dugu ikusten duguna ez ulertzea, ez ikustea baino.
40. Barruko (h)arrari zer ematen diozue jaten?

Ana Urkiza Ibaibarriaga